

# Urkiolari buruzko MINIgida

**Urkiolako Parke Naturalaren  
azterlari txikientzako  
behaketa -koaderno**

Mikel del Reguero  
Mikel Valverde



# Urkiolari buruzko MINIgida



**Urkiolako Parke Naturalaren  
azterlari txikientzako  
behaketa -koaderno**

# Urkiolari buruzko MINIgida



**Urkiolako Parke Naturalaren  
azterlari txikientzako  
behaketa -koaderno**



Bildumaren 4. zk.

Aurreko zenbakiak:

1. Urdaibairi buruzko MINIgida (1997)
2. Hiri inguruneari buruzko MINIgida (1997)
3. Ezkerraldeari buruzko MINIgida (1998)

Urkiolari buruzko MINIgida  
UNESCO Etxea-Euskal Herriko UNESCO  
Zentroaren argitalpena da

**ARGITARATZAILLEA:**

Bizkaiko Foru Aldundia  
Ingurugiro eta Lurralde Ekintzarako Saila

**EGILEA:** Mikel del Reguero

**IRUDIAK ETA KOMIKIA:** Mikel Valverde

**ITZULPENA:** Julen Álvarez

**KOORDINAZIOA:** Mónica Díez Salinas / M. Carmen de la Huerga

**DISEINUA:** I ♥ VALLEJO

**ARGITARALDI HONETARAKO ©:** Bizkaiko Foru Aldundia

**IRUDIETARAKO ©:** Mikel Valverde

**1. ARGITALPENA:** 2000ko urtarrila (2.000 ale)

**INPRIMITZAILLEA:** Berekintza Inprimategia, E.M.

**ISBN:** 84-7752-293-6

**LEGE GORDAILUA:** BI-2.319-99

# HITZAURREA

---

MINIgida honetan zehar, gure lagun Martin eta Mari Anbotoko Damaren eskutik, Urkiolako Parke Naturala ezagutuko dugu; historiaz eta kondairaz jositako leku bat, Naturaz gozatzeko parada eskainiko diguna.

Urkiolan barrenako gure ibilbidean Parkean bizi den zenbait landare eta animalia espezie ezagutu, ingurune honen zati diren Durango aldeko mendien ikuskizun zoragarriez gozatu eta leku honetan euskal nekazal ingurune tradizionalak, desagertzeko zorian dauden bizimodu tradizionalak eta bere mito eta ohiturek bizirik dirautela egiaztatu ahal izango dugu.

Hemen aurkezten dizugun MINIgida honek Urkiolako Parke Naturala ezagutzen eta denok hain berezia den leku hau babesteko eginbeharrean gure ekarpena egiteak duen garrantzia ulertzen lagunduko dizu.

**Maria Esther Solabarrieta Aznar**

*Ingurugiro eta Lurralde Ekintzarako Foru Diputatua*




# BISITALDIRAKO INFORMAZIO PRAKTIKOA

---

## TOKI ALAI

Komenigarria da TOKI ALAIra (Urkiolako Informazio eta Interpretazio Zentrora, hain zuzen) aldez aurretik deitzea, ikuslegoarentzako neguko eta udako ordutegiari buruzko eta eskola-taldeentzako bisitaldi gidatuak adosteko informazioa eskuratzekotan.

TOKI ALAIren telefonoa: 94 681 41 55



## MINIgidan PROPOSATZEN DEN IBILBIDEA BURUTZEKO GOMENDIO OROKORRAK

- Argitalpen honetan jasotako ekintzek heziketa eskaintza irekia osatzen dute, ikasleen adinera, txangoaren datara edota irakasleak hautatutako ikuspegi pedagogiko eta tematikora egoki daitekeena.
- MINIgidak dokumentazio osagarria bilatzeko eskatzen duten behaketa-ekintzak eta gelan egin beharreko beste zenbait eskaintzen ditu.
- MINIgida honetan proposatutako ibilbide osoa (ikus "Pirataren Planoa", 21-22 or.) 6 km luze da gutxi gora-behera.
- Geldialdi bakoitzean proposatutako ekintzak egiteak 30 minutu eta ordu baten arteko tartea eskatzen du. Behaketa-irteeran gehienez 3-4 ordu ematea da gure aholkua. Honela zaila izango da txango bakar batean 4 edo 5 geldialdi baino gehiagoosatzea.
- Gomendagarria da ibilbidea urtean hirutan edo lautan egitea, urtaro bakoitzean behin.
- Mendian ibiltzeko eta klima baldintzei begira egokiak diren arropak eta oinetakoak eraman beharra dago. Har ezazue kontuan Urkiolan hotza eta euria oso arruntak direla.

## PARKERAKO SARRERAK

GARRAIO PUBLIKOA: GASTEIZETIK DURANGORAINOKO AUTOBUS-LINEA (Urkiolako Gaineko geldiunea)

Ordutegi, geldiune eta prezioei buruzko argibideak lortzeko telefonoak: 94 681 14 32 / 945 28 64 66

ALOKATUTAKO AUTOBUSEK PARKEAN N-240 ERREPIDETIK SARTU BEHAR DUTE (DIMATIK, HAIN ZUZEN).

10 METRO BAINO GEHIAGOKO IBILGAILUEK DURANGOTIKO SARRERA DEBEKATUTA DUTE, LINEA-AUTOBUSA KENDUTA.

# AURKIBIDEA

---

	<u>Or.</u>
LEHEN GELDIALDIA	
TOKI ALAI ZENTROA .....	14
BIGARR-EN GELDIALDIA	
ELORRI ZURIKO PALAXUA .....	20
HIRUGARR-EN GELDIALDIA	
PAGO INAUSIAK .....	35
LAUGARR-EN GELDIALDIA	
TXILAR ETA OTEEN OTALURRA .....	45
BOSGARR-EN GELDIALDIA	
PINU GORRIEK OSATUTAKO PINUDIA .....	58
SEIGARR-EN GELDIALDIA	
SAIBI MENDIA .....	64
ZAZPIGARR-EN GELDIALDIA	
ITURRIA .....	79
ZORTZIGARR-EN GELDIALDIA	
URKI ETA PAGOEK OSATUTAKO BASOA ...	85
BEDERATZIGARR-EN GELDIALDIA	
HAGINA .....	90
HAMARGARR-EN GELDIALDIA	
URKIOLAKO SANTUTEGIA .....	98

TIRA, URKIOLAKO PARKE NAZIONALA NIK USTE BAINO  
HANDIAGOA DA...! NON OTE DAUDE GAINERAKO IKASKIDEAK?



USTE DUT OSTERA  
ERE SARTU DUDALA  
HANKA...! MAISU  
ETA GIDARIAREN  
OHARREI KASU  
EGIN BANIE EZ  
NINTZEN GALDUKO



GAINERA, KOBAZULO  
HONETARA HELDU  
NAIZENETIK ABAIL  
EGINDA NAGO, EZ  
DUT GORPUTZALDI  
ONIK... LEKU  
HONETAKO GIROA  
ARRAROA... ARRAROA  
DA OSO!



A ZER NOLAKO  
ZORABIOA! ESERI  
ETA ATSEDENAL-  
DITXO BAT HARTUKO  
DUT... HONEK LEKU  
ONA EMATEN DU!



*arxel valverde / 18*

Kaixo, lagunok! Mari naiz, Anbotoko Dama, haitzuloetako jainkosa. Badira milaka urte Anbotoren oinaldeko kobazulo batean bizi naizela, bertan sutan murgildutako nire adats urreztatua orrazteko erabiltzen dudan urrezko orrazi hau bezalako altxor izugarriak gordetzen ditudalarik. Gurtzen nauten artzainen jainkosa naiz eta nire beldur dira. Iratxo orenen erregina naiz, boteretsuena. Ederra eta dotorea naiz, baina, ai! Apatxak ditut. Neu naiz lehorte, erauntsi eta txingorteen zergatia. Argi-pirrintek iragartzen dute nire etorrera gezurtiak, lapurrak, harroputzak eta emandako hitza jaten dutenak zigortzeko.

Baina ez zaitezte ikaratu, ez natorkizue zigortzera (badakit jende zintzoa zaretela), hain ondo ezagutzen ditudan mendi hauetan zehar zuek gidatzera baizik, gal ez zaitezten eta Natura, nik ordezkutzen dudan Ama Lur maitea, Urkiolako Natur Parkeak babesten duena, elkarrekin ezagut dezagun.







BAZENEKIEN...

